

DIRU-LAGUNTZEN DEIALDIA 2020 OSASUN ARLOKO IKERKETA ETA GARAPEN PROIEKTUETARAKO (EUSKO JAURLARITZA)

**Eskaerak egiteko epea: 2020ko maiatzaren 5etik
ekainaren 4era**

Diru-laguntza jaso dezaketen proiektuak:

Deialdi honek hiru laguntza ildo bereizi barne hartzen ditu:

- a) Osasun-arloko ikerketa-jarduera sustatzea. **Tipologia hau ez dago UPV/EHUra irekia.**
- b) Osasun-arloko ikerketa-jarduera areagotzea. **Tipologia hau ez dago UPV/EHUra irekia.**
- c) Osasuneko ikerketa estrategikoen sustapena. Proiektuak 1 eta 3 urte bitartean garatu ahal izango dira, diru-laguntza urtez urtekoa izango bada ere, eta 2020an garatutako jardueretarako emango da. Bi modalitate bereizten dira:
 - Osasun arloko Oinarrizko Ikerlanerako lankidetzak proiektuak: **ZTBESeko Agenteekin lankidetzan** burutuak, fenomeno eta gertakari behagarrien azpian dauden oinarriak buruzko ezagutza berriak eskuratzeko eta ezagutza-oinarria zabaltzeko helburuz.
 - Osasun arloko Garapen Teknologikoko proiektuak: Osasun sisteman jatorria duten proiektuak, lehendik kontrastatu izan diren aurretiazko esperientzietan oinarrituak, eta osasun arloko proiektuei lotutako ezagutzaren balio katean eta garrantzian aurrera egiteko bideratuak. Aurretiazko emaitza edo esperientzia batzuetan oinarritutako garapen proiektuak izan daitezke, transferentzi ahalmena erakusten dutenak, osasun arloan teknologia berritzaileak garatzeko proiektuak, edo teknologia sanitario aurreratu baten baliozkotze kliniko edota teknologikoa eskatzen duten proiektuak.
- d) Interes bereziko ekintza osagarriak: Diru-laguntza lerro hau ZTBESeko Agenteentzat dago irekia, edozein kategoriatan kreditatutako Agenteentzat, osasun arloko ikerketan eta garapenean laguntzeko izango diren ekintzak finantzatzeko helburuz; interes orokorrekoak izango dira, eta RIS3 biozientziak/osasuna lantaldeen ekintza planetan ezarritako RIS3 jarduerari eta helburuari edo Ekimen Estrategikoei lotuta egongo dira. Diru-laguntza urtez urtekoa izango da eta 2020an garatutako jardueretarako emango da. Lerro honetan modalitate bat jasotzen da bakarrik, eta ekintzek ondokoak barne har ditzakete:

- Elkarlanerako erremintak diseinatzeko eta mantenimendua egiteko laguntza, arlo hauetan: gailu medikoak, medikuntza pertsonalizatua, gaixotasun arraroak eta neurozientzia-neuroteknologia, ekimen estrategikoen arloan, negozio-ereduen esparruan, eta berrikuntza irekiko programetan. Barnean hartuta dago laguntza ematea plataforma edo partzuergo publiko-pribatuak sortu eta iraunarazteko, eta baterako lana egiteko prozesuak antolatzeke.
- Elkarlan zientifiko-teknologikoa eta enpresartekoa erraztera bideratutako jarduketak (I+G programak diseinatzea, balio-kateetako erakundeen arteko elkarlanari laguntza ematea eta living lab ezartzea edo sendotzea barnean hartuta), I+G+B proiektuak prestatzeko aholkuak eta diseinua, eskaintza-eskarietako bitartekaritza, eta dinamizatzeke, bultzatzeke eta animatzeke jarduerak.
- Prospektibako eta eskari goiztiarreko ikerketak egitea, bai eta ikerketen emaitzak eta berrikuntzarako ideiak transferitu eta ustiatzeari buruzko ikerketak edo txostenak ere (titulartasunaren eta babesaren alderdiak barnean hartuta), alderdi sozioekonomikoekin batera. Bideragarritasun-ikerketak ere barruan daude (30.000 euroko gehieneko finantzaketarekin), kontzeptu-probak edo proiektu pilotuak egin aurretik; izan ere, horietan lan hauek ere ordain daitezke: negozio-plana eta bera garatzeko finantza-beharrizanak zehaztea, eta merkatu-hobia eta sistema sanitarioaren edo pazienteen beharrizanak identifikatzea.
- I+G+B nazioartekotzeko jardueretako parte-hartzea sustatzea, Europako deialdietarako proposamenen prestakuntza barnean hartuta.

-Zabalkundeko eta dibulgazioko jarduerak, batez ere Basque Health foroari eta Basque Health marka sendotu eta posizionatzeari loturikoak.

Biozientzien eta osasunaren arloko RIS3 lantaldeko eskaera bat laguntzea aurreikusi da, baita bi ekimen estrategiko laguntzea ere. Laguntza horietara bideratutako dirulaguntzaren zenbatekoa kendu ondoren, geratzen den zenbatekoa osasun-ikerketa estrategikoa sendotzeko lerrora bideratuko da.

Finantza erakundeak:

Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzaren Euskal Sareko (ZTBES) Agenteek **bakarrik** jaso ahal izango dituzte Agindu honetan adierazten diren diru-laguntzak, eta diru-laguntzen eskaera aurkezteko datan ondorio horretarako kreditatuak.

Ondoko esteka honetan kontsultatu daiteke Agenteen zerrenda:

<https://apps.euskadi.eus/aa40paWebPublicaWar/webPublicaJSP/aa40painicio.do?idioma=eu>

Ikertaldearen baldintzak:

1. Diru laguntza jasotzeko hautagaiak diren proiektu guztietan gutxienez Osasun Ikerketako Institutuen edo Osasunaren arloko I+G Erakundeen kategorian akreditatutako ZTBESeko eragile akreditatu batek parte hartu behar du eta Euskadiko osasun sistemakoa izan behar du (**b+ocruces bizkaia, b+odonostia, b+oaraba, kron+kgune**).

2. Finantzaketa zenbait agentek eskatzen badute, proiektu edo jarduera bakoitzean parte hartzen duten agenteetako ikertzaile nagusietariko batek hartuko du bere gain proiektuaren koordinatzailearen izaera, eta bera izango da Ikerketa eta Berrikuntza Sanitarioko Zuzendaritzarekiko solaskidea.
3. Talde eskatzaileetako kideek funtzionario, estatutu edo kontratu lotura formalizatua izan beharko dute agindu honetako 3. artikuluan adierazitakoari jarraituz onuradun den ZTBESeko eragilearekin, proiektua egingo den zentroarekin edo onuradunarekin ikertzailearen lotura babesten duen hitzarmen bat indarrean duten entitateekin, gutxienez laguntza eskatzen den unetik emakida-ebazpena eman arteko aldia.
4. Ikertzaile nagusiek, eginkizun horren pean, gehienez bi proiektutan hartu ahal izango dute parte, hartara eragotzi gabe 6. artikuluan xedatutakoa. Ikerketa-taldeko gainerako kideek ez dute mugarik izango proiektu desberdinetan parte hartzeko

Aurrekontuak lantzeko argibideak (deialdiaren 7.artikulua begiratu)

| | DIRU-LAGUNTZA JASO DEZAKETEN PROIEKTUAK | DIRU-LAGUNTZA JASO EZINGO DUTEN PROIEKTUAK |
|---------------------------------|--|--|
| LANGILEAK | Ikertzaileak, teknikariak eta bestelako langile laguntzaileak. Osasun langilea jarduera asistentzialetik liberatzeak eragindako kostuak, % 50era arte | Funtzionario, estatutu edo kontratu lotura duten langileen kostuak, EAEko Sektore Publikoko ZTBESeko Agenteei lotutakoena. Langile horiek ezin izango dute inputatu kostua orduko. |
| ONDASUNAK ETA ZERBITZUAK | Proiektua burutzeko erabilitako material inbentariagarria. Material suntsikorra eta gastu osagarriak. Material bibliografikoa. Emaitzak hedatzeari eta transferitzeari lotutako gastuak. Kanpoko zerbitzuen kontratazioa, eskaeraren memorian adierazi beharrekoa. | Altzariak eta instalazioak. Kudeaketarako ekipo informatikoen erosketa. Bulegoko material orokorraren finantzaketa (fotokopiak, tonerra edo telefono gastua). |
| BIDAIAK | Landa-lana Koordinaziorako bilerak Kongresu eta konferentzietara joatea | |
| ZEHARKAKO KOSTUAK | Proiektua burutzeko kostu zuzenen % 21 | |

Eskaerak aurkezteko modua eta epea:

2020ko maiatzaren 5etik ekainaren 4era.

Eskaerak aurkezteko jarraibideak:

OSASUNeko IKERKETA ESTRATEGIKOEN SUSTAPENA

UPV/EHU buru den / koordinatzen dituen proiektuak: Eskaeren aurkezpena Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik formalizatuko da. Eskatzaileak deialdian eskatzen diren eranskinak deskargatu, bete eta bidali beharko ditu e-mail honetara: convocatorias.dgi@ehu.eus

| | |
|--|--|
| <p>2020ko maiatzak 18 (barne)</p> | <p>Iib Eranskina - Agente eskatzailearen Ikertaldea eranskina igortzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak proposatutako langileen zerrendarekin, gainbegiratu dezaten. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar da, mezuaren gain adieraziz "EJ Osasun Deialdia 2020". Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik ziurtatuko da aurkeztutako langileek ez dutela bateraezintasunik, eta Ikertzaile Nagusiari itzuliko zaio dagozkion oharrekin.</p> |
| <p>2020ko maiatzak 26 (barne)</p> | <p>Eskaerak aurkezteko beharrezko dokumentua igortzea; eskaera horiek <u>Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik igoko dira aplikaziora:</u></p> <p>II-A-3 Eranskina - Ikerketa proiektuaren memoria, Agente parte-hartzaile bakoitzaren informazioarekin batera (II-B eta II-C-3 Eranskinak).</p> <p>IIB Eranskina - Ikertaldea Agente eskatzailea (adierazitako zuzenketak sartuta).</p> <p>II-C-3 Eranskina - Memoria ekonomikoa Agente eskatzailea.</p> <p>IID Eranskina - Curriculum vitae normalizatua, ikertaldeko kideena, IP barne (Instituto Carlos III eredu edo FECYT eredu ere onartuko dira).</p> <p>Jarduerarako baldintza gisa, eta dagokien izaera kontuan hartuta, proiektuek legez ezarritako baimenak edota txostenak izan behar dituzte:</p> <ol style="list-style-type: none"> i. Etika Batzordearen baimena, hala badagokio. ii. Baldin eta proiekturako giza lagin biologikoak behar badira, euskal Biobankuaren Ziurtagiria eskatu beharko da, eta halakorik behar dutela jakinarazi. <p>Erabili beharreko eredu normalizatuak aurrean aipatutako esteketan egongo dira eskuragarri.</p> <p>Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik eskaeren aplikaziora igoko dira dokumentuak, eta ofizios erantsiko da erantzukizunpeko adierazpena, UPV/EHUko Legezko Ordezkariak sinatua.</p> |
| <p>2020ko ekainak 4</p> | <p>Eskaerak aurkezteko epearen amaiera. Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik bere eskaeraren aurkezpen ziurtagiria epean sinatuta bidaliko zaio Ikertzaile Nagusiari.</p> |

Kanpoko Agente bat buru den / koordinatuko dituen proiektuak: Proiektuaren buruak aurkeztuko ditu eskaerak. UPV/EHU azpiproiektua koordinatzeaz arduratzen den pertsonak convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar ditu, **2020KO MAIATZAREN 26A BAINO**

LEHEN, eranskin hauek: **Iib Eranskina - Ikertaldea Agente eskatzailea** eta **II-C-3 Eranskina - Memoria ekonomikoa Agente eskatzailea**, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak gainbegiratu ditzan. Dokumentu normalizatuak aurrean aipatutako esteketan egongo dira eskuragarri.

Dokumentazioa gainbegiratu ondoren, ofizioz kudeatuko da erantzukizunpeko adierazpenaren eredia, e-mail bidez igorri beharrekoa UPV/EHUko Ikertzaile Nagusiari, hark proiektu buruari igor diezaion (aplikazio telematikoari erantsi beharko dio eta behin betiko aurkezpena egin).

INTERES BEREZIKO EKINTZA OSAGARRIAK

UPV/EHU buru den / koordinatzen dituen proiektuak: Eskaren aurkezpena Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik formalizatuko da. Eskatzaileak deialdian eskatzen diren eranskinak deskargatu, bete eta bidali beharko ditu e-mail honetara: convocatorias.dgi@ehu.eus

| | |
|--|--|
| <p>2020ko maiatzak 18 (barne)</p> | <p>Iib Eranskina - Agente eskatzailearen Ikertaldea eranskina igortzea, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak proposatutako langileen zerrendarekin, gainbegiratu dezaten. Eranskina convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar da, mezuaren gain adieraziz "EJ Osasun Deialdia 2020". Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik ziurtatuko da aurkeztutako langileek ez dutela bateraezintasunik, eta Ikertzaile Nagusiari itzuliko zaio dagozkion oharrekin.</p> |
| <p>2020ko maiatzak 26 (barne)</p> | <p>Eskarak aurkezteko beharrezko dokumentua igortzea; eskaera horiek <u>Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik igoko dira aplikaziora:</u></p> <p>II-A-4 Eranskina - Ikerketa proiektuaren memoria, Agente parte-hartzaile bakoitzaren informazioarekin batera (II-B eta II-C-4 Eranskinak).</p> <p>IIB Eranskina - Ikertaldea Agente eskatzailea (adierazitako zuzenketak sartuta).</p> <p>II-C-4 Eranskina - Memoria ekonomikoa Agente eskatzailea.</p> <p>IID Eranskina - Curriculum vitae normalizatua, ikertaldeko kideena, IP barne (Instituto Carlos III eredia edo FECYT eredia ere onartuko dira).</p> <p>Jarduerarako baldintza gisa, eta dagokien izaera kontuan hartuta, proiektuek legez ezarritako baimenak edota txostenak izan behar dituzte:</p> <ol style="list-style-type: none"> i. Etika Batzordearen baimena, hala badagokio. ii. Baldin eta proiekturako giza lagin biologikoak behar badira, euskal Biobankuaren Ziurtagiria eskatu beharko da, eta halakorik behar dutela jakinarazi. <p>Erabili beharreko eredu normalizatuak aurrean aipatutako esteketan egongo dira eskuragarri.</p> |

| | |
|-------------------------|---|
| | Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik eskaeren aplikaziora igoko dira dokumentuak, eta ofizioz erantsiko da erantzukizunpeko adierazpena, UPV/EHUko Legezko Ordezkariek sinatua. |
| 2020ko ekainak 4 | Eskaerak aurkezteko epearen amaiera. Ikerketaren arloko Errektoreordetzatik bere eskaeraren aurkezpen ziurtagiria epean sinatuta bidaliko zaio Ikertzaile Nagusiarri. |

Kanpoko Agente bat buru den / koordinatuko dituen proiektuak: Proiektuaren buruak aurkeztuko ditu eskaerak. UPV/EHUn azpiproiektua koordinatzeaz arduratzen den pertsonak convocatorias.dgi@ehu.eus helbidera bidali behar ditu, **2020KO MAIATZAREN 26A BAINO LEHEN**, eranskin hauek: **I Ib Eranskina – Ikertaldea Agente eskatzailea** eta **II-C-4 Eranskina - Memoria ekonomikoa Agente eskatzailea**, Ikerketaren arloko Errektoreordetzak gainbegiratu ditzan. Dokumentu normalizatuak aurrean aipatutako esteketan egongo dira eskuragarri:

UPV/EHUren datuak:

Hauek dira eskaera betetzeko eskatzen diren Erakundearen (UPV/EHU) datuak:

- **Erakundea:** Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea
- **IFK:** Q4818001B
- **Egoitza Soziala:** Sarriena auzoa, z/g
- **Posta Kodea:** 48940
- **Hiria:** Leioa (Bizkaia)
- **Kontaktuaren posta elektronikoa:** convocatorias.dgi@ehu.eus
- **Kontaktuaren telefonoa:** 94 601 80 08

Kontaktua:

| IKERKETAREN ERREKTOREORDETZA | ARLOKO | OSASUN SAILA (EJ) |
|---|--------|---|
| 94 601 79 34/ 94 601 8171 convocatorias.dgi@ehu.eus | | 94 5 01 91 93 investigacion-san@euskadi.eus |